

Gurasoak nee aitte hemengua ta nee ama Azkarateko alaba. Azkarate badakizu non dagon? ya Gipuzkoa muga hortan. Ta ahizpe bat Albisun zauken, ta aitte ta ama hil tzaizkion, ta Albisuko ahizpaengana torri zen, ta hortik honea esposatu zen nee ama.

Diferentea! Lan asko in behar zen oain itten den gauzendako, biltzen den gauzendako. Ordun negun hillebeten bat hala pasatzen giñun lanik in bae, baño denboa piskoat baldin bazen, lahiekin, igual bi hillebetez, geldittu bage, lahien egoten giñen, geo lur hoiek konpondu ta patata, maize ta, ereitten giñun ta jaiotzen zeren garaien altxurrekin, beste bi hillebete pasatzen giñun, bela hazten zeren belar piskaatzuk, ordun belar piska zen, oain gehiena belarra da, baño belar pixka haiekin bela heldu zeren garik eta gauzek ta urrin erdiaño eultzitan ibiltzen giñen, igual hogeitaz erregu gari hartzeko egun guzie, famili guzie han larrañean egoten giñen, oso... eultzitzeko re... oain makinak eta badere, baño ordun, etzen makinik, bate makinik. Zea... ohol batzuk, iltze zar batzuk azpitik, ta haiek egun guzien idiekin bueltaka ibiltzen giñen larrañen, ya dena txeatu artio. Ta txeatutzen zen, bildu, ta haizea baldin bazabillen, haizetu eta garbittu. Ezpazen... Haizeik ezpazen, hurrengo egunerako montondu ta han utzi, uzten giñun. Hurrengo egunian tajada doble.

Allegatu izandu naiz hortan e, bai. Subasta bat izandu zen, Etxabarri bazen han Olazagutien kontratiste bat ona ta harrek hartu zun, ta lau mutil bagiñen ta esan zigun: "nahuze hartu... pusketzeko... Botatzeko ta pusketzeko lantegi baita, lauen artean hartu giñun eta hiru hillebetes ateratzeko kondizioa zen, ta hillebete ates pusketu giñun dena. Gogorra, gogorra, goizian argittu orduko joaten giñen, ta beatzitan hala gosaldu, ya, dena izerdittik jartzen giñen, ta geo, hamabitan o bazkaldu, ta iluntzea artio, egun guzian han dalekedale. Trontzazar batzuk bazeren ta denak hesten zeren, oain badere... zea... motosierrak ta hoiek, baño ordun etzen, zorroztu in behar zen, bazkakin (?) zorrozten, trontzazar haiek zorrozten. Baño oso lan nekoso zen, nekoso, hillebete t'erdiz ehun ta hogeiaño duro hala atera giñun. Seiehun pezta.

Nik gerra in nun Afriken, el año veintiuno, desastre at izandu zen Afriken, Abd-el-krim, ta hemengo soldau asko hil zittuten, ta haiek kubritzea gui eaman tziguten, diezinieve... ez! el veinte izan behar zun. Ta gu, veintiunokoak hartu, ta nei Donostie destinetu ziaten, ta hillebete at instruzio ikasi ta hartu, ta Tetuana eaman ziguten, bi batallon, ta han hiru urteak bete artio,

Nik, aittek... asko hil zeren... asko nahi ziden ta iñalak in zittun ta ajentzie batea joan zen, Iruñea, ta handik Madrille ta sustitutoak billetzeko. Ta billetu zioten. Zazpi mille pezta pagatu, denbora hartako diru asko zen, ta Peraltako mutil bet Tetuana joan zen, ta Bautista Etxarren Urritzolara etorri zen.

Harrei eman giñun... bueno! Ajentziek milla pezta ta gehigo kobratu zun ta zazpi milla peztak soldauntzat. Bai, bai, treintaisiete, hoitamazazpi hillebete pastu zittun la quinta del 21.

Zorritz beteik. Atorrik ez... martxoan allegatu giñen gu, ta hamabosgarren eguneako zorritz bete giñen ta atorra garbi jartzen bagiñun hurrengo egunian doble zorri, ta atorrik gabe, urrien, otubrien azkeneaño egondu giñen. Handik hurrengo hillebetea, abendue, dizienbre da, dizienbren hamirugarrean paperak joan zeren Bautista Etxarren Urritzolara etortzeko. Ordun bezalako egun pozeik eztut nere denboran izandu, ezta esposatu nintzen egunian ere. Zein pozik torri nintzen ni, bakar-bakarrik, Tetuandik Algeziraze, ta Algezirazen hurrengo egunian tren bat, rapido bat tortzen zela, egun hartan ateratzen zela merkantzi bat, tren mantso bat. "Nik, mantso edo ez, trenean jua behaut lenbailen tierra hontatik joan behaut, nik, merkantzi et, ta hiru egun ta piko kostatu zitten, Algezirasetik Panplonaa. Gauez allegatu nitzen, gaueko hamarretan tortzen zen Iruñetik trena, banakin ze kostunbre zuten goizez...

Ordun etzen ez telebisio t'ez radio t'ez dause ta lana egiñ ezkeoz lenbailen goatzera bakotxa. Nik banakin nee aitte ta ama goatzean egongo zeela, ta hor atzeko alde hortatik lehio zar bat bagiñun, ta ni nee ekipo guztikin sartu nitzen ta taska! Aitte ta ama goatzean zauden lekuen plantatu nitzen ta biek bulutsiik. Ta heldu zeeten ta haien pozak, neria eta haienak e. Behala ama jetxi zen, aita re bai, segidan sue in ta ollasko bat bazauken amak... apainduik ya zauken, berotu ta afaldu giñun ta hurrengo egunian ordu betian iatzarri nitzen, bai.

Mis padres, mi padre de aquí y mi madre nacida en Azkarate. ¿Sabes dónde está Azkarate? Ya, en la muga con Gipuzkoa. Y ella tenía una hermana en Albisu, se le murieron el padre y la madre, y vino para estar con la hermana de Albisu, y de allí se vino a casar aquí mi madre.

¡Diferente! Había que trabajar mucho en comparación con lo que se hace ahora, en comparación con las cosas que se juntan para hacer ahora. Entonces en invierno pasábamos algún mes sin trabajar, pero si había un poco de tiempo así, igual pasábamos dos meses sin parar con las layas, trabajando con las layas, luego arreglábamos un poco esas tierras y sembrábamos patatas, maíz y otras cosas, plantábamos y cuando salían trabajábamos con la azada, pasábamos otros dos meses, y enseguida salía otro poco de hierba, entonces había poca hierba, ahora la mayoría es hierba, pero con aquellos pocos de hierba enseguida llegaban el trigo y otras cosas, y para mediados de octubre hacíamos la parva; para conseguir diez robos de trigo igual pasábamos todo el día, allí estábamos en la era toda la familia, muy... incluso para hacer la parva... ahora hay máquinas, pero entonces, no había máquinas, ninguna máquina. Esto... unas tablas, con unos clavos grandes por debajo, y estábamos todo el día dando vueltas con los bueyes por la era, hasta que ya habíamos molido todo. Y se molía, se recogía, y si andaba viento, se lanzaba al aire y se limpiaba. Si no andaba... Si no había viento, se amontonaba para el siguiente día y se dejaba allí, lo dejábamos allí. Al día siguiente doble tajada.

Sí, ya he llegado a hacer eso también, sí. Hubo una subasta, en Etxabarri, allí en Olazagutia, había un contratista bueno, y lo cogió aquél, y nosotros estábamos cuatro mozos y nos dijo: si queréis cogerlo... para cortarlo... Porque el trabajo era tirar los árboles y cortarlos; lo cogimos entre los cuatro, la condición era terminar de sacarlo todo en tres meses, y cortamos todo en un mes. Duro, duro, nos íbamos por la mañana antes de amanecer, y a eso de las nueve almorzábamos, ya estábamos completamente sudados, y luego, a las doce comíamos, y hasta anochecer, todo el día allí dale que dale. Había unas tronzadoras grandes y todas se atascaban, ahora hay... esto... motosierras y esas cosas, pero entonces no las había, había que afilarlas, afilarlas con la piedra de afilar, afilar aquellas tronzadoras. Pero era un trabajo muy cansado, cansado, en mes y medio ganábamos a cada ciento veinte duros o algo así. Seiscientas pesetas, o algo por el estilo.

Yo hice la guerra en África, el año veintiuno, hubo un desastre en África, Abd-el-krim, y mataron a muchos soldados de aquí, y nos mandaron a nosotros a cubrir a aquellos, en el diecinueve... ¡no!, tuvo que ser en el veinte. Y nos cogieron

a nosotros, a los del veintiuno, y a mí me destinaron a San Sebastián, y aprendí la instrucción en un mes y nos cogieron y nos llevaron a Tetuán, dos batallones, y allí hasta que se pasaran los tres años.

Yo, mi padre... se murieron muchos... me quería mucho e hizo lo posible, y fué a una agencia a Pamplona, y de allí a Madrid para buscar sustitutos. Y lo encontraron. Pagamos siete mil pesetas, para entonces era mucho dinero, y un chico de Peralta se fué a Tetuán, y Bautista Etxarren vino a Urritzola.

Se lo dimos a él... ¡bueno! La agencia cobró más de mil pesetas y las siete mil pesetas para el soldado. Sí, sí, treinta y siete, la quinta del 21 pasó treinta y siete meses.

Lleno de piojos. Sin camisa... llegamos en marzo, y para el decimoquinto día estábamos llenos de piojos y si nos poníamos la camisa limpia al día siguiente teníamos el doble de piojos, y estuvimos sin camisa hasta finales de octubre. Al mes siguiente, diciembre, fué diciembre, pues el trece de diciembre llegaron los papeles para que Bautista Etxarren volviera a Urritzola. No he conocido un día tan feliz como aquél, y también el día que me casé. ¡Qué contento vine!, completamente solo, de Tetuán a Algeciras, y al día siguiente en Algeciras había un tren, un rápido que venía; y aquel mismo día salía un mercancías, un tren lento: "yo, sea lento o no, tengo que irme cuanto antes, tengo que irme de esta tierra", un mercancías, y me costó tres días y pico de Algeciras a Pamplona. Llegué de noche, el tren llegaba de Pamplona a las diez de la noche, yo sabía qué costumbres tenían por las mañanas...

Entonces no había ni televisión ni radio ni nada, y si había que trabajar había que acostarse lo antes posible. Yo sabía que mi padre y mi madre estarían en la cama, y por esa parte de atrás de ahí, teníamos una ventana grande, y yo entré por ahí con todo el equipo y ¡patatán!. Me planté donde estaban mi padre y mi madre en la cama, los dos desnudos. Mi madre se levantó en seguida, y mi padre también. Hicieron fuego en seguida y mi madre tenía un pollo... ya lo tenía preparado, lo calentó y cenamos, y al día siguiente me levanté a la una, sí.